



EDIKTUA

ENEKA MAIZ ULAIAR
ETXARRI ARANAZKO ALKATEAK

ADIERAZTEN DU

AURREKONTUEN HASIERAKO ONESPENA (2016)

Etxarri Aranzko Udalak, 2016ko martxoaren 23an osoko bilkuran, 2016. urteko aurrekontu orokor eta bakarra, eta hura betearazteko oinarriak onetsi zuen hasiera batez. Baita Musika Eskolakoak ere.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, onetsitako aurrekontua idazkaritzan egonen da ikusgai, hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Etxarri Aranzko, 2016ko martxoaren 23an

ALKATEA

Eneka Maiz Ulaiar

